

## KONTRIBUZIO BEREZIAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

### 23. ordenantza

#### Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen I. tituluko IV. kapituluko 8. atalean, 109. artikulutik 120.era bitartekoetan, bi horiek ere barne, xedatutakoaren babesean.

#### Zerga-egitatea

2. artikulua.- Kontribuzio berezien zerga-egitatea da subjektu pasiboek onura bat edo beren ondasunen balio-gehikuntza bat erdiestea, Udalak herri-lanak egin edo udal-zerbitzu publikoak ezarri edo handitzearen ondorioz.

3. artikulua.- 1) Honako hauek hartuko dira udal-obra eta -zerbitzutat:

a) Udalak bere eskumenen esparruan esleitu zaizkion eginkizunak betetzeko egiten dituenak, salbu ondareko ondasunen jabe titular gisa egiten dituztenak.

b) Udalak egiten dituenak, beste entitate publikoek esleitu edo eskuordetuta, eta beste batzuk non legearen arabera titulartasuna eskuratu duen.

c) Beste entitate publikoek edo beren emakidadunek egitekoak direnak, Udalaren diru-ekarpena baliatuta.

2) Aurreko apartatuko a) letran jasotakoak udal-obra edo -zerbitzu gisara joko dira, nahiz eta erakunde autonomoek edo merkataritza-elkarteek egin, baldin eta kapital soziala Udalarena bada, oso-osorik, eta hala joko dira ere emakidadunek udal-ekarpenak baliatuta egiten dituztenak edo zergadunen administrazio-elkarteek gauzatzen dituztenak.

4. artikulua.- Kontribuzio berezien bitartez bildutako kopuruak zer obra edo zerbitzu dela medio eskatu eta horren gastuak berdintzeko baino ez dira baliatuko.

#### Subjektu pasiboa

5. artikulua.- 1. Hauek dira kontribuzio berezien subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten entitateak, baldin eta kontribuzioa ordaintzeko betebeharra sortzen duten obrak egiteak edo udal-zerbitzuak ezarri edo handitzeak onura berezia ekarri badiete.

2) Honako hauek onura berezia ateratzen dutela kontsideratuko da:

a) Ondasun higiezinak ukitzen dituzten obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, ondasun higiezin horien jabeak.

b) Enpresa-ustiapenak medio obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, haien titularrak diren pertsonak edo entitateak.

c) Suteen kontrako zerbitzuak handitu edo hobetzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, ondasun ukituen jabeek gain, udal-mugartean arlo horretan aritzen diren aseguru-konpainiak.

d) Lurpeko galeriak egiteagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, horiek erabili behar dituzten hornidura-enpresak.

3) Jabetza horizontalaren erregimeneko kasuetan, jabeen erkidegoaren ordezkariak jabekideen izenen eta erkidego horretan bakoitzak duen partaidetzaren koefizientearen berri emanen dio Udal Administrazioari, banako kuotak igortze aldera. Horrela egin ezean, ulertuko da kuota bakarra igortzea onartzen dela, eta erkidegoa bera arduratuko dela kuotaren banaketaz.

#### Zerga-oinarria

6. artikulua.- 1) Gehienez ere lanak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik Udalak jasaten duen kostuaren % 90ek osatuko du kontribuzio berezien zerga-oinarria. Udalak, antolamendurako erabakia hartzerakoan, kasuan-kasuan aplikatu beharreko ehunekoa finkatuko du.

2) Kostu hori honako kontzeptu hauek osatuko dute:

a) Aritu-lanen benetako kostua, bai eta proiektuak erredaktatzeko zein obrak, planak eta programa teknikoak zuzentzeko zereginena ere.

b) Egin beharreko obren edo zerbitzuak ezarri edo handitzeko lanen zenbatekoa.

c) Obrek edo zerbitzuek modu iraunkorrean okupatu behar dituzten lurren balioa, non eta horiek erabilera publikoko ondasunak, Udalari doan eta nahitaez lagatako lursailak edo Estatuak nahiz Nafarroako Foru Komunitateak Udalari lagatako higiezinak ez diren.

d) Eraikinak eraisteagatik eta laborantzak, obrak edo instalazioak suntsitzeagatik bidezkoak diren kalte-ordainak, bai eta eraitsi edo okupatu beharreko ondasunen errentariei dagozkienak ere.

e) Zerbitzu eta obretan inbertitu den kapitalaren interesa, Udalak kontribuzio bereziek berdintzen ez duten parteak edo -horien zatikapen orokorra eginez gero- haiek berdindutako parteak finantzatzeko kreditura jo behar izan badu.

3) Obra edo zerbitzuetarako aurrekontuak jarritako kostu osoa aurreikuspen hutsa izanen da. Benetako kostua handiagoa edo txikiagoa izatera, hura hartuko da kasuan kasuko kuotak kalkulatzeko.

4) 3.1) c) artikuluan aipatzen diren obrak edo zerbitzuak direnean, edo artikuluko bereko 2) zenbakian aipatzen den udal-ekarpena duten emakidadunek egindakoak direnean, kontribuzio berezien zerga-oinarria ekarpenen zenbatekoaren arabera zehaztuko da, hargatik eragotzi gabe beste administrazio publiko batzuek obra edo zerbitzu bera dela-eta ezartzen ahal dituztenak. Edonola ere, artikuluko honen lehen apartatuak aipatzen duen muga errespetatuko da, % 90 alegia.

5) Zerga-oinarria finkatze aldera, Udal Administrazioak bere gain hartutako kostutzat joko da guztizko kostuari Udalak lortuko dituen dirulaguntzen edo laguntzen zenbatekoa kenduta ateratzen den emaitza.

6) Dirulaguntza edo laguntza kontribuzio bereziaren subjektu pasibo batek emana bada, haren zenbatekoak pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzeko baliatuko da lehenik. Dirulaguntzaren edo laguntzaren zenbatekoak kuota gainditzen badu, gaindikina, hainbana partiturik, beste subjektu pasiboen kuotak gutxitzeko erabiliko da.

#### Kuota

7. artikulua.- Kontribuzio berezien zerga-oinarria subjektu pasiboen artean partituko da, kontuan harturik obrak eta zerbitzuak zer motatakoak diren, arau hauei men eginez:

a) Oro har, batera nahiz bereiz aplikatuko dira, partitzeko modulu gisara, higiezinaren fatxadetako metro linealak, haien azalera, haien bolumen eraikigarria eta Lurraren Kontribuziorako duten balio katastrala.

b) Suteen kontrako zerbitzua ezarri, handitu edo hobetzeko bada, hainbanaketa udal-mugaratean kokaturiko ondasunak direla medio arriskua estaltzen dituzten entitate edo sozietateen artean egiten ahalko da, entitate horiek aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren arabera egin ere. Baldin eta subjektu pasibo bakoitzari eskatu beharreko kuota hark bildutako primen % 5 baino handiagoa bada, gaindikina hurrengo ekitaldietara pasako da, erabat amortizatu arte.

c) Ordenantza honetako 5. artikuluko 2. apartatuko d) letrak aipatzen dituen obren kasuan, kontribuzio bereziaren zenbateko osoa obra horiek erabili behar dituzten konpainia edo enpresen artean partituko da, bakoitzari erreserbatzen zaion espazioaren arabera edo haien osoko sailaren araberrako proportzioan, nahiz eta berehala erabiltzekoak ez dituzten.

8. artikulua.- Aplikagarri diren arauak edo nazioarteko hitzarmenek onura fiskalik ematen badute, onuradunei egokitzeko zaizkien kuotak ez dira partituko beste zergadunen artean.

9. artikulua.- Behin ordaindu beharreko kuota finkatuta, korporazioak zilegi izanen du, subjektu pasiboek hala eskatuta, kuota zatikatu edo geroratzeko agintzea, gehenez ere, bost urtean.

#### Tributuaren sortzapena

10. artikulua.- 1) Kontribuzio bereziak obrak gauzatu direnean sortuko dira, edo zerbitzuak ematen hasi direnean. Obrak zatikatzeko modukoak baldin badira, subjektu bakoitzarendako tributua obraren tarte edo zati bakoitzari dagozkionak noiz burutu eta une horretatik aurrera sortuko da.

2) Aurreko apartatuan xedatu dena ezertan galarazi gabe, behin ezartzeko eta antolatzeko erabaki zehatza onetsita, Udalak zilegi izanen du aurrez eskatzea kontribuzio bereziak ordaintzeko, hurrengo urterako aurreikuspenen den kostuaren arabera. Ez da zilegi izanen beste urteroko bat aurreratzeko eskatzea, aurreratze hori zer obratarako eskatu eta horiek gauzatu ez badira.

3) Kontribuzio bereziak sortzeko momentua kontuan hartuko da ordaintzera beharurik nor dagoen finkatzeko, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, nahiz eta antolamendu-erabaki zehatzean subjektu pasibo gisara erabakia onetsi zen datan nor zen eta hura agertu, eta hark kuoten ordainketa aurreratu arren, artikuluko honetako 2. apartatuak xedatzen duenarekin bat. Antolamenduari buruzko erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa ageri den pertsonak horren jakinarazpena jaso eta ezarpena sortzen duten ondasun edo ustiapenen gainean dituen eskubideak eskualdatzen baditu –erabaki hori onesten den unetik sortzapena gertatzen den unera bitarteko epean–, egin den eskualdatzearen berri eman beharko dio Udalari eskualdatzearen datatik hasi eta hilabeteko epean, eta hala egiten ez badu, Administrazio horrek zilegi izanen du kobratzeko egintza zuzentzea espediente horretan subjektu pasibo gisa ageri zenaren kontra.

4) Behin obrak osorik edo parte batean burutu edo zerbitzua ematen hasita, subjektu pasiboak, oinarria eta behin betiko banan-banako kuotak zehaztuko dira, eta egin beharreko likidazioak igorri, eta egindako ordainketa aurreratuak konpentsatuko dira konturako entregara gisa. Hori guztia Udalak zehaztuko du behin betiko, kasuan kasuko obra edo zerbitzurako tributua antolatzeko hartuko den erabaki zehatzaren arauarekin bat egin ere.

5) Ordainketa aurreratuak egin dituztenak tributua sortzen denean subjektu pasibo ez diren pertsonak badira, edo egokitu zaien behin betiko banan-banako kuota gainditzen badute, Udal Administrazioak ofizioz eginen du behar den itzulketaketa.

#### Ezarpena eta antolamendua

11. artikulua.- 1) Kontribuzio bereziak ordainarazteko, kasuan-kasuan ezartzeko erabakia hartu beharko da aurrez.

2) Kontribuzio berezien bidez ordaindu beharreko obra bat egiteko edo zerbitzu bat ezarri edo handitzeko erabakia ezin izanen da gauzatu kontribuzio berezien antolamendu konkretua onetsi arte.

3) Antolamendu-erabakia nahitaez hartu beharrekoa izanen da, eta obra eta zerbitzuen aurreikusitako kostua finkatu beharko du, bai eta onuradunen artean partitu beharreko zenbatekoa zein partitze-irizpideak ere. Antolamendu-erabaki zehatzak Ordenantza honi eginen dio erreferentzia.

4) Behin kontribuzio bereziak antolatzeko erabaki zehatza hartu eta ordaindu beharreko kuotak finkatuta, subjektu pasiboek banan-banan jakinaraziko zaie haien berri, baldin eta subjektuak edo beren helbideak ezagutzen badira; bestela, ediktu bidez eginen da jakinarazpena. Interesdunek errekurtsioa aurkezten ahalko dute, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Legearen bederatzigarren tituluko II. kapituluaren aurreikusitako moduan.

12. artikulua.- 1) Udal-eskumeneko diren obrak eta zerbitzuak Udalak beste toki-entitate baten laguntza ekonomikoarekin egiten baditu, eta kontribuzio bereziak foru-arauetan xedatutakoaren arabera ezartzen badira, obrak egitea edo zerbitzuak ezartzea bere gain hartzen duen entitatea arduratuko da kontribuzio horiek kudeatu eta biltzeaz, nahiz horrek ez duen galarazten entitate bakoitzak dagokion eskumena atxikitzea, ezartze- eta antolatze-erabakiei dagokienez.

2) Entitate horietako batek antolamendu-erabaki zehatza onesten ez badu, jarduketa-unitatea balio gabetuko da, eta entitateek zeinek bere kabuz hartuko dituzte behar diren erabakiak.

#### Herritarren lankidetzak

13. artikulua.- 1) Lanek ukitutako jabe edo titularrek zergadunen elkarte administratibo bat sortzen ahal dute, Udalak obrak egin edo zerbitzuak ezarri edo handitu ditzan sustatzeko, konpromisoa hartuz, betiere, Udalaren finantza-egoerak hala agintzen badu haren parte ordaintzeko, obra edo zerbitzua zein izan eta hori dela medio finantzatu behar duen parte ordaintzeaz gain.

2) Orobat, Udalak sustatutako obrak egiteak edo zerbitzuak ezarri edo handitzeak ukitzen dituzten jabe edo titularrek ere zergadunen elkarte administratiboak sortzen ahal dituzte, kontribuzio bereziak antolatzeko erabakia jendaurrean egon artean, Udalak aurretik erabakitakoa medio eginen diren lanak edo zerbitzuak gauzatzeko beren laguntza ematen parte hartze aldera.

3) Zergadunen elkarteen funtzionamendua eta eskumenak haien estatutuetan xedatzen dutenaren arabera egokituko dira, estatutuak Udalak onetsi beharko dituelarik. Nolanahi ere, zergadunen elkarteek gehiengo osoz hartutako erabakiak lotesleak izanen dira gainerakoentzat, ukitutako jabetzaren bi herenak biltzen badituzte. Elkarte batek, behar den quoruma bildurik, zuzendaritza-batzordea izendatzen baldin badu, horrek hartutako erabakiak lotesleak izanen dira interesdun guztientzat.

14. artikulua.- Aurreko artikulua aipatzen dituen zergadunen elkarte administratiboak sortu ahal izateko, ukitutakoen gehiengo osoz hartu beharko da erabakia, betiere ordaindu beharreko kuoten bi herenak biltzen baldin badituzte edo, kuotak zehaztu gabe izanez gero, ukitutako jabetzaren bi herenak.